

BAZTANGO PARTE HARTZE FOROA HIRIGINTZA PLAN OROKORRA

1º LURRALDE EREDUA

Zein da Baztanerako garapen eredurik egokiena?

Kontuan hartuta mugapen orografikoak direla eta (landa zelai gutxi eta Iparreko Ur Konfederazioak jarritako mugak), Baztanek aukera gutxi du industria handiak erakartzeko. Beraz, lehen eta hirugarren sektoreak indartu behar dira, sinergiak lortze aldera. Nekazaritzak eta abelzaintzak, bizimodu tradizionalari eustea ahalbidetzeaz gain, paisaia zaintzen laguntzen dute. Eta paisaia (natura) eta ondare kulturala (arkitektonikoa, etnografikoa, arkeologikoa...) dira bailararen erakargarritasun handienak turismoari begira. Aldi berean, bailararen kokapena, Iruñea, Irun eta Baionaren artean, zerbitzu sektorearendako (merkataritza, ostalaritza, e.a.) abantaila estrategikoa da, eta beraz, aprobeixatu beharrekoa. Azkenik, mehategien ustiaketa eredia erabat baztertu behar da, ez baitator bat arestian aipatutako garapen ereduarekin.

Herriek handitu beharra dute? Zein da Elizondoko papera, hiriburu gisa? Sobera handitu da? Aldekoak eta kontrakoak

Herriek handitu behar dute testuinguruaren beharren arabera, betiere modu arrazional, orekatu eta iraunkor batean. Berez, Elizondo ez da bailararen hiriburua, baizik eta erdian dagoena, handiena eta zerbitzu gehien biltzen dituena. Elizondo sobera indartzeak herriak eta herrien bizitza ahultzen ditu. Hori dela eta, orain ez dauden zerbitzuak eskaintzekotan (errate baterako, antzoki bat edo), seriozki pentsatu beharko litzateke bertze herrietan kokatzeaz. Lekarozko institutuaren adibidea dago, eta positibotzat jo daitekeelakoan nago.

Edozelan ere, Elizondo asko handitu da, baina gehienbat pisuetako eraikinak direla eta. Azken urteotan egindako pisuak aintzat hartuta, ez dut uste momentu honetan gehiago eraikitzeko beharrik dagoenik.

2º ETXEBIZITZA

Ze etxebizitza beharra ikusten duzu Baztanen? Bada eskaera gehiagoko eremurik?

Gaur egun etxebizitza kopuru eta mota ezberdinei dagokienez, eskaintza zabala dago Baztanen. Baina badaude arazoak: pisu hutsak eta alokatzen ez direnak, etxe zaharrak konpontzeko laguntza falta... Alokatzeko zailtasunei dagokienez, badirudi alokairuaren

kultura falta dagoela: jabeek ez dituzte beren pisuak eskaintzen, eta balizko alokatzaileek bertze formula/toki batzuetara jotzen dute.

Garapen urbanistikoa planteatuko zenuke? Herri-guneetan? Nola uztartuko zenituen etxebizitza eta ingurugiroa (etxebizitzak lur ez-urbanigarrietan, errehabilitazioak)?

Baztanen baditugu etxe barreiatu asko: batzuk baserriak dira, lehen sektorean aritzen direnak, eta bertze batzuk, aldiz, etxebizitza soilak. Lehenengoez etxebizitza izateaz gain, garapen ekonomiko iturria ere badira, eta batez ere ingurugiroa eta paisaia zaintzean parte hartzen dute ("*mendia ez bada lantzen, sasiz beteko da*": baserriko jendearen kezka izaten da). Bigarrenek ez dute funtzio hori betetzen. Biek ala biek eskatzen dituzte inbertsioak zerbitzuetan (ur- eta abarreko konexioak, pistak, e.a.). Hori dela eta, udal zergen aldetik bereizketa egin beharko litzatekeela uste dugu: lehen sektoreari loturiko etxei aplikatzea zerga baxuagoak etxebizitza soilei baino. Bertze alde batetik, azken hauen zergak ere herriko etxebizitzetara aplikatzen zaizkienak baino altuagoak izan beharko lirateke.

Beraz, printzipioz, herri-guneetan zentratu beharko litzateke garapen urbanistikoa. Lur ez-urbangarrietan eraikitzeak muga asko jarri beharko lirateke, hain zuzen ere, etxeak barreiatzeak dakartzan kosteak eta mota guztietako arazoak ekiditeko. Aldiz, errehabilitazioak egiteko ahalik eta laguntza eta erraztasun gehienak eman beharko lirateke. Zentzu honetan, funtsezkoa da Baztango ondare arkitektonikoaren babesa zaintzea eta horren bizitza berreskuratzeko moduak ezartzea.

Ze etxebizitza motan eskaera handiagoa uste duzu dagoela? (babes ofizialekoa, famili bakarrekoak...)

Tamalez, eskaera famili bakarreko etxebizitzetara dagokie; tamalez, hemengo etxe tradizionalak handiegiak baitira gaur egungo sendiendako. Ez ditut ezagutzen teknikoki dauden baldintzak etxe tradizionalak pisutan banatzeko, baina Udalaren esku balego, hori sustatu beharko litzateke. Hala ere, babes ofizialeko pisuen eskaintza zabaltzea ere funtsezkoa da.

Zer egiten ahal dugu utziak diren edo egoera txarrean dauden etxebizitzekin?

Bitarteko juridikoak eta materialak eskaini beharko lirateke etxe horiek aprobetxatu ahal izateko, arestian aipatu bezala.

3º MUGIKORTASUNA-KOMUNIKAZIOA

Ongi komunikatua dago Baztan inguruko bailarekin? Era Iruñearekin? Eta Iparraldearekin?

Errepideak ez daude gaizki, baina garraio publikoari dagokionez, ia-ia hutsaren hurrengoa dugu. Autobusezko komunikazioak oso txarrak dira, eta kotxearekiko erabateko menpekotasuna sortarazten da. Interesgarria litzateke Baztango populazioak

dituen mugitzeko ohiturak aztertzea (lanera joateko, erosketak egitera joateko, e.a.), gero horiei garraio publikoz erantzun ahal ote zaien aztertzeke.

Bailaren barnean, zer hobetuko zenuke herrien arteko komunikazioan? Ze iritzia duzu bizikletaren erabilera bultzatzeari buruz? Nola daude bideak? Basokoak?

Herrien arteko komunikazioa errazteko, batez ere gidatzeko baimena/kotxerik ez dutenei begira (gazteak, adituak...) txiki-bus edo taxi zerbitzu antolatuak garatzea beharrezkoa litzateke (Gipuzkoako zenbait herritan egiten den bezala). Bizikletaren erabilera bultzatu behar da, eta horretarako lehengo bide batzuk, gaur egun oso erabiliak ez direnak berregokitu ahal izanen lirateke. Ez da ahaztu behar Bide Berdearen proiektua (abian dena) bertze ibilbide batzuekin lotu beharko litzatekeela: adibidez, Irurita lotu ahal litzateke errota arteko bidexkarekin. Mendiarteko bideak ongi daude oro har.

4º GARAPEN EKONOMIKOA

Zer proposatzen duzu Baztan egoera sozio-ekonomikoa hobetzeko?

Hau galdera hau!!!! Hilabetez egon gintezke honetaz hizketan! ;) Baina tira, hasiera batean aipatutakoaren harira, eta bi hitzetan erranda, lehen sektorea eta zerbitzuak era elkar loturiko batean bultzatu beharko lirateke. Turismoa bereziki indartu beharko zen, naturari eta kulturari loturik. Azken batean, garapen endogenoa behar da indartu: bertakoek sortutako bizibideak.

Ze behar ikusten dira sektore desberdinetatik: nekazaritza, abeltzaintza, industria, turismoa, komertzioa...

Nekazaritza eta abeltzaintzaren alorrean dauden mugapen ugariak direla eta, dagoena optimizatu behar da bertako produktuei balio erantsia emanez. Hau da, gehienbat marketing alorrean eraginez. Dauden baliabideak hobetzeko inbertsioak bideratu behar dira, betiere planteamendu estrategiko batetik (adibidez, hiltegia hobetzea eta indartzea). Lehen aipatu bezala, sustatu beharreko industria ez da erraz izanen industria handia eta kanpoko kapitalekoa: bai, berriz, lehen sektoreari loturikoa eta industria txikiez osatua. (adibidez, "artisans industria bezala).

Merkataritza alorrean, dagoen denda sarea indartzea beharrezkoa da, erakargarriago bihurtuz, norabide bikoitzean: batetik, Dantxarinerako "efektua" aprobetxatuz eta horren jarraipea bilakatzen ahaleginduz, eta bertetik, ohiko merkatal guneei aurre egiteko. Zentzu honetan, merkatal gune irekiaren ("*centro comercial abierto*") eredia aztertu beharko litzateke (nik neuk laster turismo eta merkataritza zinegotzigoa hartuko dut eta lan-lerro hori zabaltzeko asmoa dut).

Natura eta kultura-turismoa dira bultzatzekoak gurean. Kasu honetan ere, baliabideak ez zaizkigu falta: falta zaiguna da horiek harremanetan jartzea eta hobeki aprobetxatzea. Hain zuzen ere, turismo mota hau dela eta, ezinbertzekoa da gure ingurugiroa eta ondare arkeologiko, arkitektonikoa, etnografikoa... bereziki babestea.

Garapen industrialerako eremu berrien beharra ikusten duzu? Bideragarriak dira?

Ez, ez dut ikusten horren beharrik. Dauden industria guneak hobetu behar dira, ez berriak eraiki. Akaso, eskualde mailako industria gune nagusi baten sorrera babestu ahal da (adibidez: Legasakoa, Arcelorrek alde egiten badu).

5. EKIPAMENDUAK

Uste duzu HAPO berriak ekipamendu zehatz baterako lur baten aukera eman behar duela? Zeinek dira zuretako ekipamendu interesgarrienak?

Bai. Nire ustez, Baztanen falta den ekipamendu garrantzitsuena antzoki/auditorio/erabilera anitzeko gela da: oraingo Kultur Etxeak ez du ematen horretarako. Baztanek nahikoa biztanle du eta eragin esparrua handiagoa oraindik; hori dela eta, proiektu malgua eginez gero, oso erabilgarria litzateke. Ez luke zertan Elizondon egon behar izanen, lehenago aipatu bezala.

6. INGURUNEAREN ZAINZA

Balora ezazu Baztango baso eta eremu naturalen zaintza egoera.

Oro har, balorazioa positiboa da. Arreta bereziagoa eman beharko litzateke eremu babestuak diren horiei (txorien babeserako eremuak, e.a.), bai beren zaintzari begira, bai eta horiek turimorako eduki dezaketen erakargarritasunari begira.

Errekaren inguruko aukerazko jarduerak. Lehentasunak: garbiketa, pasealekua...

Errekak ahalik eta era naturalenean mantendu beharko lirateke: hain zuzen ere, beren erakargarritasuna/xarma horretan datza. Garbiketa beharrezkoa da gizakiak eragindako kalteei aurre egiteko, baina betiere ekosistema errespetatuz. Zentuz honetan, ez dut begi onez ikusten era sistematiko batean urbanizatzea bazterrak: ibilbideren bat egin ahal da, interpretazio guneren bat sortuz, baina errekari bere tokia errespetatuz.

Baloratu beharreko ingurunearen bertze arloren bat

Ingurunearen zaintza ingurune hori okupatzeko modu tradizionalekin lotu behar da: hau da, Baztanen dagoen ondare etnografikoak (errotak, gaztaindegiak, elur-zuloak, e.a.) erakusten digu gure arbasoek ingurune horrekin ezarritako hartu-eman orekatu eta errespetuzkoak, eta hori hezkuntza eta turismo alorretan landu beharko litzateke. Bertze alde batetik, ingurunearekiko sentsibilizazioa sustatu beharko litzateke biztanlegoaren artean.

7. EGOKIA IKUSTEN DUZUN BERTZE EDOZEIN PROPOSAMENA

Plan Orokorrean baloratu beharko den bertze gairen bat

Ezinbertzekoa da Udal Planean aurreko Udal Planean katalogatutako eraikinak beren katalogazioan mantentzea eta bertzerik gehitu behar ote den aztertzea.

Elizondon, 2012ko apirilak 16an

Maite J. Iturre
Nafarroa Bai 2011ko Aralarreko zinegotzia

PARTICIPACION CIUDADANA EN EL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN ABRIL 2012

Reflexiones que debería recoger el nuevo Plan Municipal de Baztan

Suelo Urbano

1.- Planteamiento de crecimiento natural de los pueblos, mediante nuevas zonas urbanas desarrolladas mediante unidades de ejecución adecuadas al tamaño del pueblo, que afecten a pocos propietarios, para facilitar su gestión sin litigios vecinales.

Estas unidades de ejecución, estarían dentro de un planteamiento general, de forma que el desarrollo progresivo de distintas unidades, cree una zona bien estructurada. (En Amalur existe un estudio realizado por los alumnos de arquitectura de la Universidad de Navarra.)

2.- Planteamiento de creación de más viviendas en los edificios urbanos existentes, de forma que la Institución Príncipe de Viana no pare proyectos de este tipo imponiendo limitaciones estéticas que invalidan la creación de nuevas viviendas dentro de edificios existentes.

En estos edificios, se pueden hacer viviendas libres o de VPO.

Este punto hace necesario la previsión de creación de aparcamientos en las inmediaciones de los suelos urbanos, al no haber sitio material en las calles para aparcar los vehículos generados por las nuevas viviendas.

Suelo no Urbanizable

1.- Hay muchos edificios existentes en suelo no urbanizable, que anteriormente fueron vivienda y ahora está catalogados por el catastro como almacenes o establos de aprisco.

Que el nuevo Plan los consolide los caseríos, bordas, ... y autorice el uso de vivienda en estos edificios, aún no teniendo los 10.000 m² de parcela que exige el POT. (Existe un planteamiento parecido en la normativa de Ituren, recientemente aprobada)

2.- Que el territorio de Baztan se clasifique por usos forestales, zonas agrícola-ganaderas con posibilidad de concentración parcelaria y resto.

3.- Que en el resto, en cada pueblo se creen zonas de barrios, donde se pueda edificar viviendas con 1500 m². (Según el actual POT vigente).

4.- Que las actividades agrícola-ganaderas, tengan facilidades dentro de la regulación pertinente, para el ejercicio de su actividad y ampliaciones necesarias.

5.- Que en el suelo no urbanizable de Baztan, que es el municipio más extenso de Navarra, se puedan implantar actividades industriales, limitadas por el Gobierno de Navarra según el D.F. 84/1990, de 5 de abril, por el que se regula la implantación territorial de polígonos y actividades industriales en Navarra.

El plan actual, prohíbe todo tipo de industrias y cualquier emprendedor que dispone de un caserío o parcela de terreno está obligado a acudir a un polígono industrial lo que hace muchas veces inviable la actividad. Microeconomía. Queserías, pequeños talleres, artesanías, elaboración de productos alimentarios...

BAZTAN IKASTOLAKO PROPOSAMENAK BAZTANGO UDAL PLAN OROKORRAN SARTZEKO.

1. Se considera una problemática importante el caos circulatorio que se origina en horas punta en el entorno de la Ikastola del Pilar, ya que debido a la estrechez de la vía pública en esa zona, se generan situaciones de peligro tanto para los viandantes (niños, padres, etc..) como para los propios vehículos.
Por ello, solicitamos se haga el estudio pertinente para evaluar la situación, y posteriormente darle solución, bien sea con el ensanchamiento de la vía, o con otras medidas.
También creemos que sería conveniente dotar de una acera a todo el camino que va desde el Bar Gloria hasta la misma puerta de la Ikastola del Pilar. En su día se pintaron unas marcas amarillas para delimitar el camino, pero observamos como continuamente los coches invaden ese espacio para pasar por la vía. Por ello pensamos que la mejor solución es construir una acera hasta arriba.
2. En días de lluvia abundante, en la subida a la Ikastola del Pilar, se producen caídas de agua abundantes en todo lo que es la cuesta, llegándose a generar una especie de riachuelo, que origina peligros y molestias a los viandantes, y en épocas de temperaturas frías, placas de hielo peligrosas.
Solicitamos se estudie la evacuación correcta del agua para corregir esto, bien sea modificando la vía pública o con otras medidas.
3. El frontón del Pilar, está actualmente arrendado al centro Benito Menni por la Guraso Elkarte de la Ikastola de Baztán para el plazo de 5 años, y consideramos que cuenta con un espacio de suelo importante para hacer en él cualquier dotación de disfrute para todos los ciudadanos.
Para ello, proponemos que en un futuro no muy lejano se tenga en cuenta este espacio, y se den los pasos pertinentes para hacer de este lugar un sitio de esparcimiento para todas las edades.
4. Consideramos el Parque de la Ikastola Infantil, como el Parque central de Elizondo. A él acude mucha gente con sus niños, tanto del propio Elizondo, como del Valle, así como turistas que acuden a Baztán. Pero creemos que dicho parque, actualmente, no está en las mejores condiciones, tanto de terreno (pavimento, zonas verdes, etc....), como de dotación de columpios, etc...
Por ello, consideramos que la remodelación total del Parque, tiene que ser una apuesta prioritaria de este Ayuntamiento para incluirla en el futuro Plan General Municipal, y hacer de él un lugar atractivo tanto para el ciudadano local como para el visitante.
Nosotros, desde la Ikastola, vemos algunas deficiencias tanto en las rejas que delimitan el recinto, como en el suelo que no es zona verde (se hacen charcos, barro, etc...), alcantarillado, foso de arena(que no nos importaría que se eliminara y se sustituyera por otra cosa), etc....

En otro orden de cosas, aún sabiendo que no pueden ser incluidas en el Plan General Municipal, reformas o sustitución de elementos en edificios ya existentes, nosotros desde la Ikastola queremos incluir las siguientes propuestas:

- 1- Estudio y posterior ejecución, para la sustitución del sistema de calefacción de la Ikastola del Pilar.
- 2- Sustitución de las ventanas actuales, por otras más modernas y que aislen más en todo el edificio de la ikastola del Pilar.

Nos consta, que con el tema de la calefacción ya se ha puesto en marcha algo, lo cual nos tranquiliza. Esperamos que todo vaya para adelante.

Con el tema de las ventanas, por nuestra parte ya nos hemos puesto en contacto con una persona para que nos haga un presupuesto aproximado de lo que costaría la sustitución de todas las ventanas y persianas, y después trasladar dicho presupuesto al Ayuntamiento para su estudio, búsqueda de ayudas, posibilidades de afrontar el gasto, posibles plazos de ejecución, etc.....

Todas estas propuestas, han sido consensuadas por la Dirección de Baztán Ikastola y por la Guraso Elkarte de Baztán Ikastola.

Esperamos que algunas de estas propuestas, sino todas, merezcan de su estudio pertinente, y que, ojalá, se puedan incluir y llevar a cabo todas.

Estamos a disposición del Ayuntamiento de Baztán, tanto Dirección como Guraso Elkarte para debatir la mejor forma de llevar a cabo cada uno de los proyectos anteriormente citados.

BAZTAN IKASTOLA GURASO ELKARTEA

Fdo.: David Alegre Lagos

APORTACION DE IDEAS PARA LA ELABORACION DEL NUEVO PLAN MUNICIPAL DEL VALLE DEL BAZTÁN DESDE EL SECTOR DE LA PROMOCION Y CONSTRUCCION.

A través de la presente y tras diferentes reuniones con diferentes empresas del sector de la promoción y construcción del Baztán y en colaboración con la petición de el Ayuntamiento del valle del Baztán para la participación en el Foro para elaboración del de Nuevo Plan Municipal del valle del Baztán, queremos a través de este documento plasmar cuales son las inquietudes y/o necesidades que de manera mas genéricas pueden afectar a el desarrollo de la actividad en materia de promoción y construcción.

En la lista de puntos siguiente intentamos dar respuestas a las preguntas expuesta en el GUION DE DEBATE DEL FORO, así mismo aportamos otros puntos que creemos de interés general.

VIVIENDA NUEVA

*-1 Nos gustaría recibir una explicación de porque se quiere modificar el plan anterior.

*-2 Planteamos que las Áreas de Reparto no sean tan amplias y/o se pudieran dividir las, lo cual favorecería la promoción y construcción de una manera menos intensa y mas adecuada a la demandas de vivienda, reduciendo de esta manera los costes de las ejecuciones de urbanizaciones tan amplias.

*-3 Un mejor aprovechamiento del suelo urbanizable, bien a través de de unos coeficientes superiores de edificabilidad, bien a la posibilidad de una altura mas en los edificios de vivienda colectiva en cualquiera de sus modalidades y/o el aprovechamiento de las plantas bajo cubiertas, hoy en día ocupadas por los trasteros pudiendo estos situarse en los sótanos, de esta manera se podría conseguir directamente un abaratamiento de la vivienda.

*-4 Crear las zonas de desarrollo urbanísticos en suelos donde realmente se puedan desarrollar, ya que comprobamos que existen muchas zonas donde a pesar de ser zonas urbanizables, por diferentes motivos (la imposibilidad de adquirir dichos suelos, Carestías de estos.....etc.) motivos no se desarrollan nunca. Creemos que existen mecanismos legales para hacer que se desarrollen estos suelos, o bien la creación de unos plazos razonables para el desarrollo de estos porque entendemos que estas zonas urbanizables de muy difícil desarrollo invitan a la especulación del valor del suelo, motivo directamente relacionado con el precio de la vivienda.

*-5 Creación bien especificadas de las zonas para las diferentes modalidades de viviendas, colectivas, unifamiliar, vivienda protegida, así mismo la contemplación de la viviendas bifamiliares, pareadas hoy por hoy no contemplada.

*-6 Una mayor agilidad y claridad en las tramitaciones burocráticas para la obtención de todas clases de licencias.

*-7 Reducción económica de los impuestos derivados de las licencias.

Nuestro sector como cualquier otro dependemos de la demanda de los ciudadanos y todo lo que se pueda hacer desde la administración y desde las empresas debería estar enfocada en facilitar el abaratamiento del precio de las viviendas.

Así mismo es de vital importancia saber que tipo de desarrollo económico se quiere para este valle, ya que dependiendo de la actividad económica dentro del Baztán hace la necesidad de la emigración de los vecinos a otras zonas en busca de trabajo, viéndose así una reducción del censo de habitantes en el valle y por lo tanto la no necesidad de creación y/o rehabilitación de vivienda.

APORTACION DE IDEAS PARA LA ELABORACION DEL NUEVO PLAN MUNICIPAL DEL VALLE DEL BAZTÁN DESDE EL SECTOR DE LA PROMOCION Y CONSTRUCCION.

CONSTRUCCION Y REHABILITACION

- *-1 Como de todos es sabido nos encontramos con un gran numero de viviendas, en su origen caseríos, en los núcleos urbanos de cualquier pueblo del valle del Baztán, en este punto creemos que existe una gran posibilidad de actuación, pero para ello nos encontramos con muchos impedimentos por parte la normativa urbanística del valle del Baztán como por parte de otros estamentos del Gobierno de Navarra (vivienda, Príncipe de Vaina, Ordenación del territorio....etc.) Entendemos necesaria una modificación de las Normas para la rehabilitación de estos núcleos, tales como la obligación de creación de aparcamientos (en muchos casos imposible, vease el centro urbano de Elizondo), el tratamiento de aperturas de huecos en fachadas para cumplir habitabilidad, la posibilidad de división horizontal.....et, bien sea para promoción de viviendas como para rehabilitación de particulares.
- *-2 Creación de un inventario de los edificios y/o puntos concretos de los edificios altamente protegidos por por parte de Príncipe de Viana, así mismo saber el grado de importancia de la vinculación de los informes de este Estamento.
- *-3 Reducción de m2 para la construcción de vivienda aislada en suelo rustico, entendemos que la norma anterior era suficiente, se puede comprobar que históricamente este es un valle donde a sido habitual la construcción de unifamiliares aisladas, lo cual a sido una pieza muy importante para el desarrollo de las empresas dedicadas a la construcción e indirectamente a a muchas empresas relacionadas a este sector.
- *-4 En el apartado de las licitaciones a obras publicas pedimos encarecidamente que se tenga una especial sensibilidad a la hora de adjudicar las obras con las empresas del Baztán, tanto las constructoras como gremios de este sector, como se puede comprobar en los últimos tiempos se han realizado grandes obras publicas en el valle(Guardería en Elizondo, cuartel de Policía Foral, Colegio de Lekaroz, Plaza de Elizondo, Edificio en plaza de Elizondo, Paseo fluviales.....etc), donde vemos que las empresas de fuera han sido las adjudicatarias, y como resultado la escasa actividad económica para las empresas del Baztán.
- *-5 Otro punto de menos calado pero no por eso de poca importancia es el problema que nos encontramos con los residuos de obra para el transporte a vertedero, no entendemos como un valle como el nuestro no cuente con un vertedero donde poder recoger todos los residuos que genera nuestro sector.
- Queremos expresar nuestra gran preocupación por el futuro de nuestro sector, ya que como tod@s sabemos ha sido uno de los motores de la actividad económica del valle del Baztán, a pesar de estos momentos de crisis por tod@ sabida, entendemos que hay mucho trabajo por hacer desde la Administración como por el sector privado en este campo y pedimos que se nos tenga en cuenta a la hora de realizar el nuevo Plan Municipal del valle del Baztán, por nuestra parte y como estamos demostrando estaremos dispuestos a aportar para bien de todos.

Baztango herritarren parte-hartze plana kontuan hartuz Baztango igeltsero eta harginen izenean proposamen batzuk ditugu arazo batzuen konponbide gisa.

-Herrietako etxe zaharrak, hutsak, egoera txarrean daudenak edo adineko jendeak bakarrik konpondu ezin dituen etxeak.

-Arazoa jabearekin nola konpondu, jabeari proposatu, etxearen zati bat konponduta m²-en arabera ?

-Etxea egoera txarrean aurkitzen denean eraikin guztia botatzeko aukera izatea.

-Egoera onean badago berriz fatxadetan leihoak eta atea irekitzeko aukera baita balkoiak egitea ere.

-Ganbaran edo azpiko solairuan bizitza egiteko aukera beti ere hemengo etxeen itxura mantenduz.

-Etxebizitzen neurriak eskaeren arabera izatea, izan ere, adineko jendeak eta gazteek txikiak nahiago ditu: 45-50m²-koa eta beste eskaera mota 80-90m²-koa.

-Etxe zaharretan bizi den jendeak etxea konpondu nahi badu:

-Lehenengo pausua: Obraren balioa, aurrekontua eskatzea, normalean jendeak aurrera jarraitzen du.

-Gehienetan obraren beharrak solairuak, tabikeak eta teilatua izaten dira. Legearen arabera proiektuak egin behar dira eta horrek diru aunitz suposatzen du. Beraz, jende aunitz gibelat joaten da ezin dielako gastu guztiei aurre egin.

Proposamena:

-Tekniko batek azterketa bat eta plano bat aurrekontu errealekin batera egitea (gauza sinple bat) horrela tramitazioak gastu txikiagoa izango du.

-Etxebizitza izandakoak lurzoru rustikoa edo orain forestal bezala ageri dira, baina benetan ez da horrela.

-Baztanen baserri aunitz hutsik daude. Baserri hauek lehen denak bizitzak izan ziren.

-Zein da arazoa: Katrastoan daude (almazenak eta apriskoak bezala). Baserri aunitz 10.000m² baino lur eremu txikiagoan eraikita daude, beraz gaur egungo

araudia jarraituz ezin da bizitzarik egin. Ondorio gisa baserri aunitz lurrera erortzen ari dira.

-Baztango obra publikoak ahal izanez gero Baztango enpresek egitea.

-Beste arazoetako bat obretako zaborra da. Obretan pilatzen diren zaborrak nora bota jakitea, izan ere, orain jendeak ahal duen lekuan botatzen baitu eta horrek Baztango bazterrak zikintzen ditu.

Espero dugu ideien trukaketa hauek lagungarriak izango direla plan berria egiterako orduan.

PLAN BERRIRAKO IDEIEN PROPOSAMENAK

Dokumentu honen bitartez gure ezinegonak eta beharrak eraikuntza sektorean zeintzuk diren azaltzen saiatuko gara.

Etxebizitza berria

1-Azalpen bat jaso nahiko genuke aurreko planaren aldaketaren zergatia esanez.

2-Banaketa eremuak hain handiak ez izatea edo zaitu ahal izatea eskatzen dugu. Honek promozioari eta eraikuntzari mesede egingo dio era baxuago batean eta baita etxebizitzaren eskaeretan ere. Era honetan hain zabalak diren urbanizazio gauzatzeen kosteak murriztuz.

3-Lurzoru urbanizagarria hobeto aprobetxatzea, eraikigarritasun koefiziente handiagoa erabiliz, edo etxebizitza eraikinetan altuera gehiago izatea modalitatea edozein dela ere. Kubiarten azpiko planta aprobetxatzea, izan ere, gaur egun trasteroek okupatzen baitute, hauek sotoetan lekua izanik.

4-Garapen urbanistikoko eremuak sortzea benetan garapengarriak diren lurzoruetan, izan ere, nahiz eta eremu urbanizagarri asko izan ez dira inoiz garatu arrazoi desberdinengatik. Uste dugu lurzoru hauek garatzeko mekanismo legal batzuk badirela. Plazo arrazoigarri batzuen sorrera lurzoruen garapenerako, izan ere, garapen zailako lurzoruek espekulazioetara bultzatzen baitute, zuzenean etxebizitzaren prezioan eraginez.

5-Ongi definitu ze eremutan ze etxebizitza mota eraiki daitekeen: familia bakarrekoa, etxebizitza babestuak, kolektiboak, honetaz gain etxebizitza bifamiliarak kontutan hartzea, elkarlotuak (pareadas) gaur egun ez dira kontutan hartzen.

6- Arintasun eta argitasun handiagoa tramite burokratikoetan lizentzia mota guztiak lortzeko orduan.

7-Lizentzien alorreko zergen murrizte ekonomikoa.

Gure sektorea beste sektoreak bezala herritarren eskaeran oinarritzen da. Administrazioetatik eta enpresetatik egiten guztiak, etxebizitzaren prezioa merketzera bideratua egon behar du.

Era berean, oso garrantzitsua da zer nolako garapen ekonomikoa nahi den Baztanentzat, izan ere, Baztango aktibitate ekonomikoa herritarren emigrazioak baldintzatzen du, horrelako bailarako biztanleen kopurua jautsiz eta etxebizitzaren berriztapenak jautsiz.